

W. WEBSTER idazle zenaren euskal ipuiñak

Lehenago ere mintzatu izan gara erdaraz, ingles euskalari jakintsu huntaz. Donibane Lohizunen bizitu zen luzeki, mende hunen lehen urteak artio. Saran ere bizitu zen eta oroit-arri bat badu hango etxe batean. Euskaldungoaz asko idatzi zuen, beti zehatz, eta Historiaz; baino geiena Pasturaletaz eta euskal ipuiñetaz.

Barandiaran, Azkue eta horiek baino zaharrago de ipuiñak biltzen, sail huntan lehengoetariko bat. Bayonako Liburutegi munizipalean, bere eskuzkribu lodi bat gorde da, Ipuñez eta euskal berriez betea. Ipuñak euskaraz daude, eta oraino argitaratu gabeak.

Zenbait ordea, WEBSTER berak ingelesez publikatu zituen, nahiz berak euskaraz artu izan euskal herritarrengandik; gure izkuntza ikasi baizuen aski ongi. Beste ipuin batzu, Vinsonek argitaratu zituen, frantzeserat itzuli ondotik.

Hunara ekartzen tugu egun Izkribu hortatik gure lankide *Charles Videgain*-ek artutakoak (autore hortaz berri geiago hemen agertuko); eta Bayonako Izkribuan ilun dauden zenbait ele guk xuxenduta, texto orijinala berdin utzirik. Huna hemen —ZORRIA— deitzen den ipuiña.

—ZORRIA—. Errege batek bazituen hiru alaba. Zerbeit bazuela beharri ondoan, eta bila diozan, erraten dio gaztenari. Bilatzen dio eta zorri tiki bat atxematen. —Aitak erraten dio: —*Eb bien, zer da?* —*Deusik.* —*Ezduzuegia erraten; bada zerbeit.* Eta Fifinak erraten zion etzuela deusik atxeman. Aita hainbertze asarretzen da non, zerbeit bazela erraten baitio; zorri ttiki bat bazuela, bainan beatz tartean sartua duela.

Kentzen dio eta eltze batean ematen; hala zorria handitzen da, non eltzea zart-arazten baitu. Pipota (barril) batean ematen dute eta zonbait egunen buruan zart-arazten du ere.— Erregeak lau karnazer [arakin] ekartzen ditu; hiltzeko bestia hura erraten diote, eta larru dezaten.— —Iten dute: erregek larru hura idortzen lehiotik ematen du eta krida-arazten, leiotik dilindan den larrua zerena den, zoinek ezagutzen baitu, posibleko duela bere alabetarik bat bere emaztetzat.—

Alde guzietarik gizonak heldu ziren, baiñan nehork etzuen larru hura ezagutzen. Jaun bat agertzen da urrerian sartua eta erraten du: —«eltze ba-

tean eta pipota batean hazi zorri baten larrua da hori».— Erregeak baietz erraten dio, egia dela eta datorla nahi duenean alabaren bereixterat.— —Etzi goanen dela erraten du.— Erregea xoratua zagoen, eta gogotik emanen zuela, agindu ezbalu ere, bere alabetarik bat.—

Erregeak bazkari eder bat preparazten du.— Arnozaharketa Fifina igortzen du xahiarat, eta estauliatik(an) (ikullutikan) pasatzean, behor xuriak erraten dio: —«Ai! Fifina, gardia zuri; zurekin bazkaldu behar duena, *jaun* debrua da eta zu berexiko zaitu.— Aitak eman diru partitzea nahiko *zaitu* (sic), bainan eztuzu hartuko; erranen diozu, eztuzula behorxuria bertzerik nahi, eta ungi kontu emazu.— Aita asarretzen bada ere, etzarella ganen behor xuria gabe, erranen diozu beti».—

Fifina tristatua da arras: ezta beztitzen ere mahaiñean emateko, eta haren aizpak, panpiñak bezala emanak ziren. Jaun hura heldu da, eta Erregea koléran sartzen, ikustean bere alaba maitena etzela beztitua; eta erraten dio nóla ezten bada bestitu?— Fifinak erraten dio: —«ezkondu behar balinbadut igual gustatukout jaun huni nere arropa ximple haukiekin»; eta hala gustatu zen ere.

Jaun harek erratean hura bereixten duela, ezkontzen dire besta ederrak —iten dituztela.— Andrea oherat badoa, eta debruak zuen gaua pasatu jarri-rik, burua pausatua buhurdiaren kontra.— Biharamunean behar zuten partitu. Aitak erraten dio, Fifinak tresoretik nahi bezenbat diru ar dezala.— Fifinak erraten dio eztuela beharrik, haren senarrak franko baduela, bainan eian (ikulluan) duen behor xuri hura eman behar diola.— Aitak ezetz erraten dio, haren amak utzia zuela harentzat, hil zenean, eta ezdiola emanen.—

Eznaiz beraz goanen nere senarrarekin; doala bera; aitak hori ikusi duenean, erraten dio beraz, ar dezala: partitzen dira. Senarrak erraten dio, haren karrosaren gibelean eman dadiela; bainan behor xuriak jadaneko errana zioen, ez egoteko gibeletik, beti aitzinean behar zuela, eta senarrari errateko, haren zaldia bezain laster goanen zela haren behorra.

Senarrak ikusirikan etzuela posible gibelean goan-araztea, uzten du beraz aintzinean eta ximista bezain laster badoazi bat eta bertze.— —In dutenean bide aũñitz, behorak lurra jotzen du, eta bi erdi —iten eta erraten du: —«sar adi hor zazpi urteentzat»; eta debrua han bere karrosarekin sartzen da.— Badoazi aintzinerat eta erraten dio: —«Fifina, zazpi urtez bakea izanen duzu; ezpaita pulit andre gazte bat hola bakarrik ibil dadin, horra prinze arropak», eta Fifina bestitua da, ale(gia) gizon; badoazi aintzinerat beti; behorra eta Fifina beti kurri ibiltzeaz unatzen dire, eta *sható* (*chateau*) baten aitzinean pasatzean behorak erraten dio: —«hemen arrastatzen bagiñe!; bada hor jaun gazte bat bere amarekin bizi dena; —ezkondu(ko) zara horrekin».—

Badoazi eta prinzeak erraten dio, eyan pensiondar [bezala] zenbait denborarentzat artuko duten.— «Baietz, erraten dio, atseginarekin» —xoragarria zen pulitez gure prinzea; berak artatzen zuen bere behorra.— Etxeko seme harek erraten dio bere amari: —«Ametsak —in-tut, prinze hori neskaxa bat dela iduritzen zait».— Amak erraten dio: —«nuntik nahi duzu?, ezta segurki hola eta frogatzeko, bihar eia nahi duen etorri zurekin ferietarat errozu, eta neskaxa balinbada, arropa ederren aintzinean arrastatuko da, eta mutila balinbada, eztu kasurik egiñen.—

Behor xuriak erraten dio bere prinzeari zer erran behar dioen eta kontu emateko ongi, arropa ederren aintzinean arrastatzeaz; eta doala xispa, sabre eta pistoletak diren tokietarat, eta han gustu artzeko.— Jaunak biharamuneko gomitatzen du, prinzeak erraten du baietz, atseginekin; badoazi beraz eta jaun harek zuzen zuzena andreen arropak ziren tokirat erematen du; eta erraten dio prinzeak:

—«Utatzigun hokiek emaztekientzat eta erraten dio; obe sabre eta xispak diren toki bat irakustea. Goazen harat, han obekiago jostatuko gara»; heldu dire etxerat eta bere amari erraten dio: —«eztu arropeeri kasurik egin eta pistolet eta xispekin egotu gara... Oraino biharamunean bere amari erraten dio; —«ama, gure prinzea neskaxa zela amets egin dut».—

Amak erraten dio: «holako liño-pezaren ikusterat zoazte; zure zaldiak liño-peza hura funditzen duela ikusten duenean, prinzeak erranen zaitu(sic) kontu emateko funditu gabe, eta hortarikan neskaxa dela señaile izain da». Behor xuriak bere prinzeari erraten dio zei —iñarazi gogo dioten eta bere zamariari *xabu xabuz*(sic) diozan liño hañitz; jaun gazte harek liño peza eder bat ikusterat gomitatzen du harekin. Prinzeak baietz erraten dio; partitzen dira eta prinzearen zaldiak jaunaren zaldiak baino malur gehiago —iten zuen; eta jaun gazte harek gibelatu behar izan zuen gatetik (sic) denen funditzerat.— Heldu da etxerat eta amari erraten dio... —«ezta ez neskaxa, zeren utzi banu, landa guzia fundituko zuen».—

Biharamunean berritz ere amets —iten du neskaxa dela. Bere amari erraten dio, eta amak dio: —«Zoazte elkarrekin mañatzerat, eta neskaxa balinbada ezta segurki mañatuko».— Behorrak erraten dio bere prinzeari zer erran behar dioten, eta doala mañatzerat; biluz dabin berehala eta hura joanen dela jaunaren garaiñoaren ganat eta lepoa tinkatuko dioela hainbertze non, etorriko diren biak lasterka heien apartatzerat, eta ezdirela mañatuko.—

Biharamunean, jaun harek erraten dio eian nahi duen harekin joan mañatzerat: prinzeak baietz erraten dio. Gogotik badoazi eta Prinzea laster laster buluzten da atorraats eman arte eta orduan behorrak garaiñoa lepotik artzen du eta itotzerat zoan mihia bi berga ateraturik, hekien apartatzerat bi jaunak etorri ezpalira.

Bere mañua uzten dute eta etxerat heldu dire, eta bere amari erraten dio segurki mutikoa dela, berehala atorraats eman zela batere ahalkerik gabe. Eta gaua pasatu eta, berritz ere erraten dio amets-in duela neskatxa zela. Amak erraten dio sagardiarat joan behar dutela, eta lore hañitz erortzen bazitzaion gaiñerat, neskatxa izanen zela. Behor xuriak prinzea prebenitzen du, zer -in gogo duten.

Biharamunean jaun gazteak erraten dio, eian nahi duen hekien sagardia ikusi; baietz erraten du. Harat joan direnean sagar-lore guziak jaunaren gaiñerat zoazin; behorra ere ari zen aizaka eta Prinzeak etzuen lore bat xoilki izatu; heldu da etxerat eta bere amari kondatzen dio nola izatu den lorez estalia eta Prinzeak etzuela bat xoilki izatu.

Berriz ere semeak amets-iten du neskatxa dela: amak etzakien zer pentsa eta erraten dio: —«nik galdetuko diot nerekin loegitea eta orduan seguratu-tuko naiz: neskatxa balinbada zu ezkonduko zara eta egiazki gizona baldinbada, ni-inen naiz harekin. —«Andre harek beraz erraten dio Prinzeari eian ezluken harekin loin nahi: prinzeak erraten dio baietz segurki. Arratsa etortzen denean badoazi biak oherat: andreak bularrak ukitzen diozka eta gohor gohorrak atxematen; hobekiago seguratzeko argia piztu du eta ikusten egiazki neskatxa dela.

Badoa bere semeari erraterat harentzat izanen dela, prinzeak nahi balinbadu; segurki neskatxa dela eta xarmanta eta ongi -iña. Galdetzen du beraz berehala jaun gazte harek emaztetzat: andre harek ere nahi du.— Besta ederrretan ezkontzen dire: ezkondu eta behor xuriak erraten dio etzuela gehiago haren beharrik, eta bertze mundurat joan nahi lukela. Bainan joan baino lehenago ematen dio xirula bat eta erraten; «deusetan penatua balinbazara, aski duzu xirula hori jotzea eta ni berehala etorriko naiz zure laguntzerat».— Behorra badoa.— Hanitz urus bizi ziren jaun andreak bere amarekin. Denborarekin bi mutiko izaten -tuzte; handituak ziren non, gizon guziek gerlara gan behar dutelako berria etortzen baita.

Berri horrek hanitz tristatu ditu eta jaunari ere gateko galdea kortetik etorri zitzaion: xangrin handia du familia guziak, bainan gan behar. Partitzen da; denboraren buruan zazpi urte pasatzen dire eta gure debruaren denborak bete.

Ifernutik ateratzen da eta bere andrea zen tokirat badoa; andre hura bazagoen bere bi mutilleri beira; sabrean edo ezpatan ari ziren biak; sartzen da etxe hartan, badoa bere andrearen ganat eta erraten dio: —«segi nezazu berehala, baten plazan hiru izanen ditut orai».—

Jaun izigarri itsusi hura etorri zenean, han zen amagiñarreba hala izitu zen non, etzion itzikan erran. Badoazi beraz ixil-ixila; gan, gan, gan, oihan beltz baterat arribatzen direnean, hiru urkabe paratuak ikustentu andre ha-

rek. Berehala pentsatu zuen hekientzat eginak izanen zirela; senarrak erraten dio: —«horra nola hil behar duzuen».—

Andreak erraten dio onduan: —«hil behar duenari etzaio deus errefusatzen, eta otoi, xirula huntarik pixka bat jotzea nere haurrari, utzi behar nazu; erraten dio: —«ba, ba, —iten ahal duzu».— Xirula jotzen ematen da, eta asi orduko agertzen da behor xuria eta debru izigarriari erraten dio: —«eztuk, ez, hik nahi huena izanen; hemen nuk ni horren laguntzeko», eta erraten du; —«Lurra, hire medioz idek-adi eta atxikak sekulakotz debru izigarri hau hire errainetan».—

Hori erran orduko, lurra idekitzen da eta debrua han gordetzen sekulako. Behorrak erraten dio: —«Orai etzare haren beldur izanen, gan da sekulako eta orai ganen zare zure etxerat zure hurrekin».— Eta Fifinak erraten dio: —«ez, ez, eznaiz sekulan menturatuko, nere senarraren etxerat agertzera; ikusi nau eta nere amaginarrebak ilkitzen, gizon horri segi, eta zer erran lezake?».—

Orai behorrak makil ttiki bat ematen dio eta erraten: —«horrekin lurra uki zazu eta etxe eder bat eginen da, barnean behar dituen gauz guziekin eta etxe aitzinean iturri urrezko bat sor-arazten duela». — Behorra badoa hura ongi utzi ondoan. Gerla finitzen da; jauna etxerat heldu da eta pentsa zazue haren pena: erraten dio bere amari, ezbadu bere emaztea atxematen, hila izanen dela; eta harek ere bere burua hilen duela. Eta berehala badoa: gan, gan, gan, eta arribatzen da oian baterat eta han zer ikusten du?— hiru urkabe.

Berehala pentsatzen du haren emaztea eta bere bi haurrak han urkatuak izatu direla, eta erraten dio harek ere han berean urkatu behar duela bere burua.— Igaten da eta burua pasatzerat zoalarik, ikusten du zerbaitek distiratzen hantiz eta erraten du: —«hobe dut lehenbizi zer den han ikustera gan, gero ere urkabe hau izanen dut. Iausten da eta badoa ikusi duena atxeman arte, eta jauregi eder baten aintzinerat arribatzen da. Sartzen da eta baso bat ura galdetzen; andreak ematen dio eta berehala jaunak ezagutzen du, eta galdetzen dio eia ezduen bada ezagutzen. Baietz erraten dio eta atsegín handieki, elkar besarkatzen dute.

Fifinak kondatzen dio bere historio guzia, nola debru harekin izan zen ezkondua, eta nola behor xuri maite harek beti lagundu zuen, eta nola beti hari fidel egotu zen. Etzuela sekulan debru harekin deusikan izan, eta fidantza gehiago izan zezan, Fifinak berritz ere xirula jotzen du eta behorra agertzen da; zeinak osoki kondatzen baitu, Fifinak bere historia kondatu zuen bezala; eta uso baten forma hartu eta gan zen airetan zerurat.

Jaunak erraten dio amaren etxerat gan behar dutela, hura ere penetan dela dudagabe, baiñan andreak, han berean obekiago litazkela erraten dio,

deusen eskasik ez dutela beren urrezko iturriarekin; eta doala bera bere amaren bila, han denak biziko zirela.—

Senarra kuxian partitzen da, bere ama hartu eta gibelerat etorri zen eta han bizi izan ziren hanitz urte, hañitz urus; ongi bizi baziren, ongi hil ziren.—

* * *

Itxurapen edo asmakeri hauek berak, beste errialdetan ere berdin agertzen direla erriko ipuiñetan, gauza jakina da; eguraldi eta urte-aroak erakusten dituzte; WEBSTER berak azaltzen zuen, ondoko ipuiñan antzutasuna adiarazten duela, andre gaztea bi amorante faltsuez burlatzen den pasarteak, eta egiazko senarra onartzean berriz, bihikor-aldia edo mardultasuna.—

ANDRE USOA eta bere ORRAZEA.—

Asko munduan bezala, baziren ama seme batzuek; arras pobreak ziren.— Sobera malurus zirela eta, seme harek nahi izan zuen, ama utzirik, gan; hala badoa beraz, gan, gan, gan...; Oihan baten barnean jauregi bat atxematen du; sartzen da eta han mutilik behar duten galdetzen du; agertzen zaio Tartaro bat eta erraten dio, nun dabilan... «Lurreko xinaurria»? —Erraten dio etxean arras pobre izan eta lanean ari nahi zuela, hobekiago izateko.—

Tartaroak erraten dio: —«Zeren egia erran dukan bizia uzten haut, »Lurreko xinaurria, eta zenbait egunen buruan, ganen haiz hemendik. Hiru »andre gazte etorriko dituk nere baratzeko urerat, mañatzerat: hekiek beren »uso-arropa utziko tiztek harri handi baten azpian, eta hartuko duk erdian »izanen den uso-larrua; bi andre gazteak uretik ilkiko-tuk eta hartuko tiztek »bere larruak. Urean geldituko denak bere larrua galdetuko hau, bainan »agindu arte lagunduko hauela beti, eztiok emanen».—

Biharamunean gure mutikoak, ikusten-tu andre gazteak urean direla; badoa eta egiten du Tartaroak erran bezala; hartzen du hirua larruetarik erdiko; bi andre gazteek beren larrua hartzen dute eta hirugarrenak galdetzen dio berea eman diozola.— Mutikoak eztiok eman nahi haren agintza gabe; andre gazteak eztiok itzematen; mutilak erraten dio ezdiola batere eman nahi. Andre gazteak orduan erraten dio; beraz, haren gainean konda dezala, ematen diola bere itza eta datorla biharamunean haren aitaren etxerat; hartuko duela mutil, halako tokitan egoten direla.—

Mutila beraz badoa biharamunean eta etxe eder hura atxematen du, bainan oihan baten barnean. Galdetzen du eian mutilik behar duten, eta erraten diote baietz, bainan lan hañitz egin beharko duela. Biharamun goizean oihan baterat ereman eta erraten dio; —«behar-tutzu haritz hauk guziak errotrarik ateratu, luzera ebaki, eman enborrak alde baterat, adarrak bertze-

rat, erroak ere denak elkarrekin, bakoxta bere iduriekin. Gero irauliko duzu, arratuko, ogia erainen, pikatuko eta hartaz egina ogi bat, eguerditako ekarri behar nazu (dautazu)».— Bertzenaz hila izanen dela.

—Mutikoak erraten dio; entseiatuko naiz.— Badoa oihanerat eta han gogoetan zagoen; hameka orenak ziren; agertzen zaio andre gaztea eta erraten dio; —«zertako zaude hola triste, etzaitut agindu lagunduko zaitudala?»; —begiak itsuzatzu, bainan hanbat gaixtoago idekitzen balinbaditutzu».—

Botatzen du orraze bat eta erraten du; —«Orrazea, hire poderez, atera-
razik haritz guziak errotik, pikatzazik, lodiak eman alde batean, mehiak igual eta erroak ere»; —Erran orduko -inak dire. Botatzen du bertze orraze bat eta erraten du; —«Orrazea, hire poderez itzulzak lur hau, arra eta erain ogia», —Erran orduko —ina da.— Bertze orraze bat botatzen du eta erraten; —«Orrazea, hire poderez, ogi hoitaz, pikatu eta —in zak opil bat»; —Gure mutikoa kurios zen zer pasatzen zen ikusteko; bainan andre gazteak erraten dio; —«malur zuri eta niri, (begiak) idekitzen balinbaditutzu; ezta deusik -ina izanen».—

Eztitu idekitzen eta opila errea da; —eguerdia jotzera zoan; erraten dio; —«Zoazi laster, eztuzu denborarik galtzeko».— Badoa mutila erregea-
renganat, opila erematen dio, erregea harritzen da, hura mutil abila delako eta nahi du seguratu; leihotik beiratu eta ikusi ondoan oihan handi hura ateratua izan dela, estonitua da; igortzen du mutila eta badoa bere andreari erraterat.—

Andreak erraten dio kontu emateko eian ezten haren alabarekin akort; jaunak erraten dio; —«Nola nahi duzu? ezdute elkar sekulan ikusi».— Jaun hura debrua zen.— Andre gazteak erraten dio aitak igorriko duela, galdua duen erestun baten bila, urrun erribera baterat; ezpata bat artzeko erranen dioela, hainbertzen erdian, bainan sabre zahar bat ar dezala, bertzeak utzirik.—

Biharamunean emazteak erraten dio, behar duela igorri, holako erribe-
ran galdu zuen erestunaren bila; igortzen du beraz eta erraten dio, bertzen artean ezpata bat behar duela berezi; arrain gaixto franko izanen duela han garraitzeko; —Mutikoak erraten dio, ezpata eder hekietarik eztuela nahi, sabre zahar hura aski duela, zikiñetan ibilia dena.— Eta badoa; erriberaren ondorat arribatu denean, han zagoen nigarrez ez jakinez zer egin; andre gaztea heldu zaio eta erraten; —«Zer, nigarrez ari zara? etzaitut nik beti lagun-
duko zaitudala erran?»—

Hameka orenak ziren; andre gazteak erraten dio; —«Sabre horrekin puskatu behar nauzu, eta puska guziak urerat botatu».— Mutilak eztu nihun-
dik nahi eta erraten dio; —«Nahiago dut hemen berean hil, ezeñez eta zuri sofriarazi.»— Andreak erraten dio; —«Ezta deus nik sofrituko dudana, -in behar duzu berehala».—

Tenorea badoha hola hola, bere sabrearekin ikaretan lotzen da puska guziak urerat botatzen ditu, bainan eri pikiñaren puska bat gelditzen da zapata bateko itzean.— Andre gaztea uretik ateratzen da eta erraten dio; —«Ezditutzu denak urerat botatu; eri pikiña falta dut»; —Bilatu eta zango azpian duela ikusten dute, itze batean gelditua.— Andre gazteak erestuna ematen dio erraten duela; —«Fite, tenorea pasatu gabe» -eguerditako eman behar zioen erregeari.— Uruski arribatzen da; andre gazteak, etxean sartzean atea zarratzen du bere indar guziekin eta ematen da oihuka; —«Ay! eri pikiña lehertua dut!», eta han —in zuela sinetsarazi.—

Errege kontent zen; erraten dio biharamunean garaiño bat ezi behar duela, eta hiru behor gazte; mutikoak entsaiatuko dela erraten dio; makil izigarri bat ematen dio jaunak. Andre gazteak arratsean erraten dio; —«Aitak erran zuen garraiño hura nere aita izanen da; zure makil izigarri harekin ioko duzu indar guziez sudur frintzetan.— Pisa espakatuko zaio [—amor emanen du—] eta garaitua izanen da».—

Lehenbiziko behorra nere aizpa zaharrena izanen da, zure —iñalakin bularretan joko duzu; hari ere pisa espakatuko zaio [—amor emanen du—] eta bentzutua izanen da.— Ni azkenik etorriko naiz, alegietan ni jo —inen duzu, eta zure makilarekin lurra joko duzu; nik ere pisa -inen dut [—amor emanen dut—] eta garaitua izanen naiz.—

Biharamunean, andre gazteak erran bezala —iten du mutilak, garraino heldu da gogotik, fierra zen, baiñan gura mutilak sudur frintzetan jo eta pisa -in [—amor ematen—] eta bentzutua izatu zen. Behorrentzat igual —iten du, bere makil izigarriarekin biak bularretan jotzen ditu; hek ere pisa —iten dute [—amor ematen dute—] eta hirugarren etortzen denean —iten du alegietan hura jo: lurra jotzen du —iten du pisa [—amor ematen du—] eta denak gan dire.—

Biharamunean nausia ikusten du, ezpainak antuak, bisaia guzia keldarra bezain beltz; andre gazteak ere bularretarikan minez; gaztena ere arras berandu jeiki zen, bertzek bezala egiteko. Nausiak erraten dio, arras baliosa eta abila dela ikusten duela, eta nahi diola, bere alabetarikan bat emazte(tzat) eman, baiñan begiak zerratu eta behar duela berezi.

Andreak erraten dio; —«zuri bigarrenik eskua ematen zaituena bereziko duzu, eta manera guzietarik ezagutuko nauzu, zeren eripikiña eskasa atxemanen baituzu; beti hori aitzinerat emanen dut».— Biharamunean nausiak erraten dio; —«hemen gaituk, orai zoin nahi dukan berexiko duk, beti begiak zerratuak».— Zerratzen ditu beraz eta alaba zaharrena urbiltzen da eta esku bat ematen dio; —erregeari erraten dio: —«pizua da eta pizuegia neretzat eztut nahi».—

Bigarrena urbiltzen da, esku bat ematen dio eta berehala ezagutzen du; eri pikiña eskas; erregeari erraten dio; —«hau da nik behar dutana».—

Berehala ezkontzen dire, hola zenbait egun pasatzen dituzte; bere andreak erraten dio; —«hobe duzu hemendik igesi gan, bertzenaz aitak hilen gaitu». — Arratseko hamar orenetan beraz, partitzen dire eta andre gazteak bere gelako ate aintzinean *ttu* —iten du erraten diolarik; —*Ttua*, hire medioz nere orde hi mintzatuko haiz— eta badoazi ungi urrun.—

...«Aita badoa gaberdi ondoan, jaun-andre hekien gelako aterat eta jotzen du atea, baiño eztiote errepustarik ematen, finkiago jotzen du eta orduan ttuak erraten dio; —«Tenore huntan ezta gela huntan nihor sartzen»; aitak erraten dio; —«Nik sartu behar dut». — Ezta posible, dio beti ttuak. Aita aserretzen da beti eta gehiago. Oren batez ttuak hola atxik-arazi zuen atean; azkenean, ezinbertzela eginez, atea autsi eta barnerat sartzen da.— Zer da haren koléra izigarria, gela utsa ikustean?

Badoa bere andrearen ganat eta erraten dio; —«Ehintzen hi tronpatu, elkar ongi ezagutzen zuten eta ongi akordatzen, biak igesi ganak ditun; baiñan ezti-tiñat hola uzten; banigoan ondolik eta goiz edo berant atxemanen tiniat». — Partitzen da beraz; gure jaun andreak urrun ganak ziren, bainan andre gaztea beti beldurrean zagoen; bere senarrari erraten dio; —«orai gu atxematea posible duke, nik ez dezaket gibelerat beira, bainan zuk eian zerbait ikusten duzun». —

Jaunak erraten dio; —«Bai, gure ondotikan gauza izigarri bat heldu da; behin ere ez dut halako mustorik ikusi». Andre gazteak, orraze bat botatzean erraten du; —«Orrazea, bire medioz forma dadiela nere aitaren aintzinean, dena sasi eta dena berro eta nere aintzinean bide eder bat». — Iten da harek nahi zuen bezala; bide puska handi bat —iten dute. Orai andre gazteak erraten dio; «beira-zazu, otoi, eian zerbait oraiño ikusten duzun». Senarrak gibelerat so-iten du baño ezdu deusik ikusten; bainan hedoitentan zerbait gauza terrible ikusten du.—

Bere andreak erraten dio eta andreak bere orrazea harturikan dio; —«Orrazea, hire medioz, hori den tokian forma dadiela bruma, arria eta galerna izigarri bat». Hek nahi bezala gertatzen da; bide puska bat —iten dute eta andre gazteak erraten dio; —«eian deusik ikusiko duzun beira-zazu; «jaunak erraten dio; orai akabo gare; hemen dugu gibeletik gure gainean, balia zaite zure poderioz». —

Botatzen du berritz ere berehala orraze bat eta erraten du: —«Orrazea, hire medioz forma zak nere aitaren eta gure tartean *arribea* bat izigarria eta han ito dadiela sekulako». —

Hori erran orduko urhandi bat ikusten dute eta han bere etsaia eta aita itotzen; andre gazteak erraten du; —«orai ezgare gehiago haren beldur,

trankil bizituko gare».— Bide puska handi bat —iten dute eta arribatzen dire leku baterat, zeinetan andre gaztea ez *baitzezaken* sar; erraten dio bere senarrari; «eztut posible aintzinatzea gehiago; giristino lurra da hori, ezin sar niteke; apez baten bila gan behar duzu lehenbizi, bataiatu behar nau eta gero zurekin etorriko naiz; bainan ongi kontu eman behar duzu, norbaitek musu ematen balinbazaitu (sic), arras ahantziko nauzu; horri ongi kontu emazu eta zuk ere ez musu eman nihori».— Bere andreari agintzen dio ezetz.

Badoha, gan, gan, gan; arribatzen da bere herrirat eta han sartzearekin matanta zahar batek ezagutzen du; heldu zaio gibeletik eta bi musu ematen diozka; akabo da. Bere andrea ahanzten du, behin ere/ikusitako ezpalu bezala, eta badago han libertituz eta bere atseginak ongi artuz.

Andre gazteak ikusirik bere jauna sekulan etzizaiola arribatzen eta haren gainean etzuela gehiago kondatu behar, makila ttiki bat artzen du eta lurra jotzean erraten: ... «nahi nuke ostatu eder bat hemen berean —iten balitz, behar diren zerbitzari eta gainerateko guziekin...»; baratze eder bat bazen aintzinean eta atean emana zen «...Ostatu huntan ematen da jaterat pagatu gabe...».—

Egun batez jaun hura badoa ihizirat bere bi lagunekin; eta oihanean zabiltzalarik erraten dute batek bertzeari: «Ez gindikan lehen ostalier hau hemen ezagutzen, ikusterat gan behar diagu; pagatu gabe ere jan ditake». Beraz badoazi; andre gazteak berehala ezagutzen du bere senarra, bainan gizonak baterez. Jaunak ederki errezibitzen ditu, eta hain kontent dire hartaz, nun batek galdetzen baitu, eian ezluken gauaren pasatzerat harekin utziko; andre gazteak erraten dio baietz.—

Bertze batek dio: —«nik ere nahiko nuen bada...». Andre gazteak erraten dio beraz: —«Eta zu bihar, nahi balinbaduzu segurki»—; bere senarrak erraten dio; —«Eta ni etzi, beraz»— Andre gazteak baietz. Beraz, jaun gazte heketarik bat gelditzen da; arratsa pasatzen du agramendu hanitzekin eta oherat gateko tenorea etorri denean, andre gazteak erraten dio; —«Ttikia zinenean apez-mutil izatu zare eta prudatzen zintuzten [espolvorear el cabello]; etzait usain hori gustatzen; behar duzu orraztatu oherat etorri baiño lehen; horra orraze bat eta pruda guzia kentzen duzunean, etorriko zare oherat».—

Gure jauna asten da orraztatzen, bainan sekulan ezin ken dezake bere pruda; ken ahala berritz etortzen zitzaion, nun andre gaztea jaikitzen denean, oraiño orraztatzen ari zen; mutikoak erraten dio: —«zer, ni etorri gabe jeiki-

tzen zare? —Ezduzu ikusten argia dela?, gehiago ezin egon ninteken, jendeak etorriko dire».—

Gure jaun gaztea badoha bere etxerat gehiagokorik erran gabe. Andrea-ren etxean gaua pasatu behar zuen laguna atxematen du; erraten dio; —«Kontent haiz? ongi jostatzen haiz?; —Ba, ba, ederki segurki; niri bezain laster pasatzen balinbazaik denbora, ongi jostatuko haiz».— Badoa beraz etxe hartarat. Andre gazteak ongi ematen dio afaiterat; afaldu ondoan erraten dio: —«Oherat gan baino lehenago zangoak behar-tutzu garbitu; hor izanen da panderu bat ur; garbiak izaten ditutzunean oherat etorriko zare».—

Bat garbitzen du bere ustez; bertzea garbitu orduko lehen-ina beltza eta zikiña du. Berritz ere garbitzen du eta zikiña atxematen du ongi garbitua zuen zangoa; hola hola hainbertze denboraz ari zen nun andre gaztea jeikitzen baita; jaunak erraten dioú —«Zer, jeikitzen jadaneko ni etorri gabe? —Zertako ez zara bada, argia baino lehenago etorri?; ni eziñ egon naiteke gehiago ohean. Argia da eta jendeak asiko dira.

Jaun gaztea, bertzea bezala erretiratzen da. Orai senarraren *saindea* (aldia) da; bertzeak baiñon obekiago zerbitzazen du, haren afarian deus etzen eskas. Oherat gateko tenorea etorri denean, badoazi andre gaztearen gelarat, eta oherat gateko prest direnean andreak hiltzeko argia erraten dio; hiltzen du eta berehala pizten da, berritz ere hiltzen du, eta hil orduko piztua da. Gau guzia atorraats pasatzen du hola, argi hura ezin hilez; argia etorri denean, andre gazteak erraten dio: —«eznauzu beraz ezagutzen, etzara oroitzen nola utzi zinduen zure emaztea apez baten bila gateko?».—

Hori erran orduko, bere burua jotzen du eta erraten: —«Hoiiek guzietaz orai xoilki oroitzen naiz; orai arte behin ere emazerikan ez banu bezala nintzen; zer urrikiak ditudan, baiñan ezda nere faltarik, bizkitartean ez nuen hola nahiko eta matanta zahar batek bi musu eman ninduen nik konprenitu gabe.

—«Iguale da, orai hemen gare eta aski penitentzia-induzu; zure lagunek ere —in dute. Gau guzia aritu da bat *burutik* prendatzen [orraztatzen] eta bertzea zango garbitzen, eta zuk baiño gehiago ezdute nerekin lorik egin. Orai gan behar duzu zure *errirat* eta handik behar duzu apez bat ekar arazi; bataiatuko nau eta orduan ganen gara zure *errirat*».—

Senarra badoa eta apezarekin heldu da, bataiatzen du eta errirat partitzen dire. Arribatu direnean, bere makilaz lurra ukitu eta erraten du; —«Jauregi eder bat izan dadiela hemen, barnean -tuen gauza suerte guziekin, baratze eder bat etxearen aintzinean».— Erran orduko egiña da eta han

A. IRIGARAY - CH. VIDEGAIN

bizi izan ziren anitz aberats eta urus, mutikoaren ama zaharrarekin. Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.— Laurentine Kopena-1877».

—Naturaren borrokak itxuratzen dira hemen, dio WEBSTER-ek, Muller-i segituz: miseria, negua, antzutasuna; eta bestetik udaberria, gaztaroa eta ioritasuna; mutikoa gabezia dago eta neskatxak ahalmen oro ditu; *lurra* eta *nekazalga* elkartzen dira azkenik.— Beste iduripen edatuagoak ere baituzte ipuin zahar hauek, Websterek geroago zion bezala, C. Echegaray-endako gutun batean.

A. IRIGARAY & Ch. VIDEGAIN

NOTA.—En el próximo número de esta Revista se publicará un trabajo con más Noticias sobre el Manuscrito de W. WEBSTER, de CHARLES VIDEGAIN, que no preceden a este artículo euskérico como debieran, por haber debido rehacer el autor su redacción.

CORRIGENDA

«*Dos notas epigráficas*», del Prof. Corominas

En el número anterior de FONTES ya se hizo mención, lamentándolo, de un grave descuido que dificultaba gravemente la buena comprensión del trabajo del profesor Joan COROMINAS, *Dos notas epigráficas*, publicado en FONTES 5 (1973), págs. 5-13, es decir, al principio del número 13 de la revista. Y, antes de explicar la naturaleza de ese descuido, a fin de que los lectores puedan remediarlo en lo posible, no es ésta mala ocasión para señalar que el artículo citado, enviado por el autor como continuación o apéndice al titulado *De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos*, que vio la luz en el número 12 de FONTES, 4 (1972), 299-319, lleva al final, en las págs. 14-19, los «Índices analíticos» que corresponden tanto a este último trabajo como a *Dos notas epigráficas*, aparecidos, según se ha dicho, en dos números distintos, aunque seguidos (12 y 13), de esta revista.

La confusión tipográfica que deploramos consiste en que lo que debía ser página 6 apareció como página 12 de *Fontes* 5 (1973). Por ello, y para que nuestros lectores puedan corregir y rectificar las consecuencias de este error, indicamos a continuación las correspondencias entre las páginas traspuestas y las originales:

Número de página en FONTES 13	Número que debe llevar
6	7
7	8
8	9
9	10
10	11
12	6

En otras palabras, son únicamente las páginas 5 y 13, primera y última del artículo, respectivamente, las que ocupan el lugar que en justicia

CORRIGENDA

les tocaba. Esperamos que el lector, con estas indicaciones, podrá subsanar la confusión. En la lectura, bastará con leer la página 12 inmediatamente antes de la página 6, y seguir por ésta hasta el final, sin olvidarse luego de que la página 12 ya ha sido leída.

Erratas en colaboraciones del Prof. Karl Bouda

Tal como se anunció en el número anterior de la revista, publicamos a continuación la rectificación de las erratas deslizadas en los trabajos *Bemerkungen zum Südhochnavarrischen*, *Bemerkungen zum Labourdinischen des Abbé GOYHETCHE* (FLV, 14, 1973), *Die Sprache des Souletiners TARTAS* y *Die Sprache des Poeten VILINCH* (FLV, 15, 1973) firmados por nuestro colaborador Karl Bouda, así como de las erratas igualmente aparecidas respecto a sus artículos en el *Indice de Autores* de FLV, según las correcciones que nos envía el autor.

ERRATA, INDICE DE AUTORES... FLV

I,1 : «lassen»	IV,4 : Testaments
III,5 : sprachliche... einer paläoeurasi	IV,7 : zu den
schen... zu einer...	V,3 : Abhandlung
III,7-8 : bask. südkauk.	V,4 : Labourdinischen
IV,3 : Übersetzung	V,6 : des Souletiners

ERRATA ZU FLV 14, 1973

134,2 : häufig,	160,7 v.u. : P.135.
134,1 v.u. : <i>soñeko</i> oder <i>zein</i> , <i>zeintas</i> ,	161,1 : P.147.
135,6 : <i>baitu</i> ,	161,3 : J.-B.
135,15 : <i>gendwoher</i> »,	164,8 v.u. : <i>norat-bait</i> .
137,14 : Instr.	164,4 v.u. : <i>solhas</i>
137,15 : <i>bègriez</i>	164,2 v.u. : 180,
140,1 v.u. : Flexion	166,6 v.u. : <i>arrañ</i> ,
142,7 : 23, <i>der</i>	166,4 v.u. : <i>itzainak</i> ,
144,5 v.u. : <i>-zue</i>	167,4-5 : Men-schen
147,9 : usw.	169,19 : <i>gateko</i>
150,4 v.u. : <i>hat</i> .	170,2 : <i>wären</i> ,
155,3 : <i>glaubt</i> ,	171,2 v.u. : <i>-er</i> ,
156,3 : Pl.-Ele-	177,2 : l.
157,28 : die sich mit den dem Nhd.	177,16 : <i>toki</i>
157,29 : baskischen	178,23 : (Ochsen)
158,20 : <i>sehe</i> ,	178,1 v.u. : <i>damu</i> .
158,3 v.u. : <i>richtig</i>	180,16 : <i>verschiedener</i>
159,5 v.u. : <i>belegt</i> .	183,2 : <i>Gen.-</i>

CORRIGENDA

ERRATA ZU FLV 15, 1973

- | | |
|--|---|
| <p>277,27 : sein
 277,33 : echt
 281,39 : <i>itzuli</i>,
 281,41 : <i>zutu</i>
 282,34 : <i>orhitu</i>.
 282,35 : 50,
 283,5 : <i>offensa</i>.
 283,10 : <i>iretssi</i>.
 284,9 : Schwankungen
 284,19 : Variante.
 285,2 : <i>ikhusi</i>,
 285,29 : 16.
 286,8 : <i>ezkartu</i>
 286,9 : 95,
 286,22 : <i>gaixtakeria...sabel-e-tik</i>
 286,30 : Relat.-kaus.
 286,31 : <i>ukhaiten</i>,
 287,25 : <i>liburuto</i>,
 287,37 : 151,
 288,26 : umgekehrtes
 289,28 : stimmlosen
 289,29 : anlautendem
 290,6 : unseren
 292,21 : 150 in
 294,8 : <i>ezagu-tu-erazi</i>
 294,10 : wir es»
 294,33 : dass
 295,4 : -ka
 297,32 : rechts
 298,18 : <i>triste</i>.
 299,7-8: an-schliessen</p> | <p>299,27 : <i>irakoizc-i-a-n</i>
 300,7 : <i>phü</i>:
 300,10 : 290 <i>ehaiz</i>
 305,12 : beruht
 308,3 : alle
 308,6 : -ra
 308,38 : 3. — 16.
 309,9 : -ira
 309,33 : <i>guziyan</i>
 309,38 : <i>eleberen</i> (zweisilbig)
 312,16 : Präs.
 312,30 : <i>tiratzen</i>.
 313,35 : dass...variiert
 315,8 : -n
 315,22 : erhalten,
 317,2 : Transitiv
 317,12 : <i>senar-gai</i>
 318,17 : 110,
 308-310 sind die kleinen runden Bogen,
 mit denen ich im Ms. die Synaloiphe
 bezeichnet habe, vom Setzer nicht be-
 rücksichtigt worden. Ich bitte, sie bei
 den aus- und anlautenden Vokalen zu
 beachten:
 308,21 und 25 je 2x. 27.29.30.31.40.
 309,1 3x. 2 4x. 3.5.8.11, ebenso intern da
 -ua- 2x und -oa-. 12 intern -ua-.-ia-.-ie-.
 13 3x. 14 2x. 20. 21 3x. 24 -e i-. 27 -a e-
 im ersten Satze. 33.34.35.
 310,1. 2 2x. 3-4. 4.</p> |
|--|---|

